

laister berri

001

ONGIZATE SAILA

002

UDALTZAINKOAK

003

ARGIZPI
ARCAZKI LEHIAKETA

004

DEHDETAKO
ERAKUSLEIHOEN
LEHIAKETA

005

UKRAMIAKO
ABESBATZA

006

HAURRENTZAKO
ANTZERKIA

007

GOIENIZ

010

EKINTZAK

laister berri

GIZARTE ONGIZATE SAILA. ADINEKO PERTSONENTZAT MENDI-IRTEERAK

Beasaingo Udalak aurkeztu berri du Aizkorri Mendizale Elkartarekin eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean adineko pertsonentzat antolatu ohi dituen mendi-irteeren egutegia. Izena eman nahi duenak amatsaldeko ordutegian gerturatu besterik ez du egoitzara..

Apirilak 21 : Asteazkena

08:00 etan
Mendi-irteera Artikutzara.

Apirilak 12 : Larunbata

08:00 etan
Mendi-irteera Balzolako kobazuloetara.

Apirilak 9 : Larunbata

08:00 etan
Mendi-irteera Gaztelugatxeko San Joanera.

Apirilak 16: Larunbata

08:30 etan
Mendi-irteera Beasain-Arriaran-Beasain.

laister berri

Diseinua:
AH Diseño
Maketazioa:
AH Diseño
Erredakzioa:
AH Diseño
Publizitatea:
AH Diseño
Imprimaketa:
Gráficas
San Martín C.B.
Lege Gordailua:
SS-654/96
Erredakzioa
helbidea:
Martina
Maiz 3/2.
bulegoa
T 943 882 257
F 943 027 639
E ah@clickah.com.

Beasaingo Kultura
Batzordeak
aldizkari honen
6.500 ale banatzen
ditu hilabetero
Beasaingo
postontzietan.

Eragilea:
kultura saila



Beasaingo udala

laister berri

UDALTZAINGOA. 2006KO JARDUERAREN DATUAK

Urtero bezala, Beasaingo Udaltzaingoak urtean zehar gauzatutako lanak gertutik ezagutzeko aukera luzatzen digu argitaratu berri duen urteko oroitidazkiaren bidez. Bertan, udaltzainek dituzten eginkizunak betetzeko, arlo ezberdinetan egindako ahalegina jasotzen da.

1.- TRAFIKO ARLOA

- Zirkulazio Istripuak	86
- Atestatuak	2
- Txostenak	20
- Alkoholemi probak	0
- Abandonatutako Ibilgailuak	20
- Garabi Zerbitzuak	23

2.- ZERBITZU BEREZIAK

- Ikastexetako sarrera- Irteerako trafikoa zuzentzea	1539
Loinazpe ikastetxea: 182 egunetan 513 aldiz	
Murumendi ikastetxea: 182 egunetan 522 aldiz	
Alkartasuna Lizeoa: 183 egunetan 504 aldiz	
- Azokako zerbitzu berezia	156 egunetan 209 aldiz
- Osasun Zentroko bidegurutzean trafikoa zuzentzea	239 egunetan 283 aldiz
- Manifestazio eta kontzentrazioen trafikoa zuzentzea	46
- Kirol Probak	17
- Herri Jaiak	27
- Pasadizokoei laguntza ematea	81
- Matxuratutako ibilgailuei emandako laguntza	62

3.- PRESTAKUNTZA

- Bide-Hezkuntza	7 ikastetxe (2365 ikasle)
------------------	---------------------------

4.- ADMINISTRAZIOA ETA ISUNA

- Udal Isunak	1312
- Epaitegiekin harremanak	39
- Ibilgailuak zigilatzea	10
- Salaketa Akta	10
- Gidabaimena gabetzea	0
- Galdutako gauzak	73
- Aurkitutako gauzak	84
- Aurkitutako dokumentuen tramitazioa	131

5.- UDAL ORDENANTZAK

- Baimenik gabeko obrak	17
- Bide publikoa okupatzea	223
- Abandonatutako txakurrak	20

laister berri

BEASAINCO HIRIA: XLIII. ARGAZKI LEHIAKETA

PARTAIDEAK:

Nahi duten zale edo argazkilari guztiak.

GAIA:

Librea.

LANAK:

Txuri-beltz edo koloretan aurkeztu ahal izango dira. Gehienez lau argazki, aurretik inon saritu gabeak.

NEURRIA:

Gehienez ere 30 x 40 edo 40 x 50 cm.ko kartoiez sendotuta. Astealdean izenburua eta egilearen datuak adierazi beharko dira (izena, helbidea eta telefonoa).

NORA BIDALI:

Korreoz:
ARGIZPI Elkartea
13 Posta Kutxa
20200 Beasain

Eskuz emateko:
ATZKORRI Mendizale Elkartea
Araña kalea 2, behea
20200 Beasain

EPEA:

Jasotzeko azken eguna 2007ko Maiatzaren 9a da.

SARI BANAKETA:

2007eko Maiatzaren 12an, arratsaldeko 19retan, Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan. Amaieran partaide guztientzako lunch-a izango da.

ITZULKETA:

2007eko Uztaillean itzuliko dira. Saritutakoak antolatzaileen esku geratuko direlarik. Inoiz argitaratzen badira, egilearen izena beti azalduko da.

ERAKUSKETA:

Aipatutako Usurbe aretoan izango da, 2007eko Maiatzaren 18tik Ekainaren 3ra arte, biak barne.

SARIAK:

Lehenengo saria	150 € garaikurra eta Beasainen erakusketa
Bigarren saria	120 € eta garaikurra
Hirugarren saria	90 € eta garaikurra
Herri edo elkartekoa	90 € eta garaikurra



laister berri

2007ko LOINATZ JAIAK" DEMDETAKO ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETA



- 1.- Lehiaketan parte hartu nahi duten Beasaingo Merkataritza Establezimendu guztiek har dezakete parte. Horretarako maiatzaren 15, 16, 17an izen eman beharko dute Dolareajatebtean, Nafarroa etorbidea 21, edo 650.600.489 telefonoan.
- 2.- Erakusleihen dotoretasunean edozein eratan egindako lanak onartuko dira, eta establezimenduan saldu ohi diren jeneroak egon beharko dute.
- 3.- Erakusketa maiatzaren 18tik 27ra bitartean (Beasaingo Loinatz jaietan) izango da ikusgai, biak barne, eta lehenengo egunerako erakusleihoak muntatuta egon behar du.
- 4.- Epaimahaia antolatzaileek aukeratutako pertsonak osatuko dute.
- 5.- Bi sari banatuko dira.
 1. SARIA: OROKORRA izango dena. Erakusleihoa bere orokortasunean puntuatuko duena. Plaka edo trofeoa.
 2. SARIA: ORIGINALITATEA puntuatuko duena. Plaka edo trofeoa.
- 6.- Sariak bana ezinak izango dira.
- 7.- Botoen emaitza eta erabakia maiatzaren 27an emango da jakitera kroniketan, eta erabakia apelaezina izango da. Saria, Bareak Elkartean emango da maiatzaren 27an eguerdiko 12:00etan.
- 8.- Lehiaketa horretan aurkezte soilak, oinarriak goitik behera onartzea dakar.

laister berri

UKRAINKO ABESBATZAREN KONZERTUA



Oreya Choir Chapelle ukrainar abesbatzak Beasainen izango du emanaldia apirilaren 4an, asteazkena. Ahozko talde den Oreya Choir Chapelle-k Aste Santuko kontzertua eskainiko du Loinazko San Martinen Parrokian. Loinatz abesbatzak antolatu duen kontzertu hau, arratseko 8:00etan izango da.

Alexander Vatsek-en zuzendaritzapean, Oreya Zhytomyr hiriko udal-gobemuak babesturiko abesbatza da. 30 abeslarik osatzen dute eta ukrainar abesbatzetan korurik berrienetakoa da ahots nahasien arloan.

Alexander Vatsek.

Vinnica-n jaio zen 1955ean. Abesbatzen zuzendaritza ikasi zuen Odessako kontserbatorioan. 1986ean Oreya korua sortu zuen, arrakasta anitz lortuaz eta nazioarteko txapelketetan lehen sariak irabaziz. 1996an Brno-n (Txekian) Gaudeamus korua sortu zuen Masryk Unibertsitatean. Egun, abesbatza horrekin lan egiten du eta berarekin lortu zituen 2002an Pardubice-ko (Txekia) nazioarteko txapelketan 2.urrezko domina, entzuleen saria eta txapelketako zuzendari hoberenaren saria.

laister berri

HAUR ANTZERKIA



Apirilak 21

Ordua: 17:00etan.

Doain. Gonbidapenak Usurbe Antzokiko lehiatilan apirilaren 13tik aurrera.

Usurbe Antzokian.

Kutxa fundazioak lagunduta.

EIDER ohera joateko orduaren beldur da. Gauez, ilunpetan, oheko bakardadearen isiltasunean, beldurtu egiten baita. Gau-mahaiko argia piztuta uzten badu ere, ez dio laguntzen, argiak sortzen dituen itzalek gehiago izutzen baitute. Eta gauero amesgaizto guztien bisita jasotzen du; zaku-gizonarena, sorginarena eta bere sorginkeriena, haurrak jaten dituen erraldoiarena, etab.

Baina heldu da gauzak aldatzeko garaia. Eiderrek ez du izutzen jarraitu nahi. Ez du piztien aurrean berriro kikildu nahi. Gau-ikarek amaiera eman nahi die, betirako. Munstro hezitzaile bihurtuko da, gaueko piztien domatzaile.

laister berri

COIENIZ ZINE KLUBA

SER O NO SER

Apirilak 12,
osteguna
Zuzendaria:
Ernst Lubitsch.



Joseph eta Maria Tura sen-armazteak Varsoviako antzerki talde bateko izarrak dira. Sobinski teniente abiadore gaztea Mariarekin dago maiteminduta eta "Hamlet" antzeztu bitartean, kamerinoan elkar ikusiko dutela adostu dute. Alemaniak Polonia inbaditzen duenean, Sobinskik Ingalaterrara alde egingo du, baina Varsoviara itzuli beharko du nazien erresistentziaren aurkako konspirazio bat agerian uzteko.

¿TELFONO ROJO?
VAMOS HACIA MOSCU

Apirilak 19,
osteguna
Zuzendaria:
Stanley Kubrick.



Gerra hotza eta Kubako misilen krisiaren garaian, 1964an, filma hau egin zuen Kubrickek. Hasieran gai hori seriotasunez lantzeko asmoa zuen arren, azkenean umore beltzeko komedia bat egin zuen. Meter Sellers aktoreak hiru pertsonaiaren papera egingo du pelikulan. Arrakasta handia izan zuen, baina baita kritikak ere, AEBko defentsa sistemari buruz ematen zuen irudi txarragatik.

TODO LO QUE QUISO
SABER SOBRE EL SEXO.

Apirilak 26,
osteguna
Zuzendaria:
Woody Allen.



Afrodisiako batez baliatuta bufoi bat erreginareen sexu-mesedeak lortzen saiatuko da. Ardi batez itxuragabe maiteminduko den mediku bat. Soilik leku publikotan berotzen den emakume bat. Bere berehalako isurtzearekin zeharo beldurtuta dagoen espermatozoide bat.. Zazpi atal desberdinetan, Allenek bere erara erantzuten ditu pelikula honen abiapuntu den sexu dibulgazioko liburu bateko galderak.